# PORRONTXO JAIAK '99

egia

IRAILAK

11, 15, 16, 17, 18, 19

# Agurra



Behin batean Egia izeneko auzo batean jai berezi batzuk sortu ziren.

Bai, bai, bereziak ziren ez ziren udaletxetik antolatuak ezta bultzatuak ere. Bertakoek, egiatarrek sortuak izan ziren eta "Porrontxoak" jarri zioten izena.

Porrontxoak guztien artean egiten ziren, ez zieten egitaraua egina ematen, honek lana ere eskatzen zuen baina horregatik ziren jai desberdinak, partehartzaileak, eta bertakoak oso arro sentitzen ziren beraien ideia eta lanetik ateratzen ziren jaiekin.

Egun horietan gertatzen zena ikaragarria zen, koadrilak beraien blusak jartzen zituzten kaleak kolorez betetzen ziren eta turuten hotsak aditzen ziren. Egunez zein gauez kalean jai giroa nabaria zen, kale erditik jendea, txarangak... eta ez ohizko auto ilarak.

Udaletxean beldur pixkat zieten auzotar hauei, oso ondo antolatzen zirelako eta badakizue aginteak antolakuntza gehiegi ikusten duenean larritzen dela. Gainera elkartasunerako tartea ere eskeintzen zen, eta bertan egoterik ez zuten preso eta errefuxiatuetaz gogoratzen ziren nahiz eta Donostiako Bulebar disdiratsua bezalako toki egokirik ez izan. Baina badakizue zer esaten zuten?

Porrontxoak aurrera ateratzeko umorea eta lana egiteko gogo ona baino ez zirela behar.

Aizu ba uste dugu aurten 18. urtez Porrontxoak hementxe ditugula. Beraz blusak astindu, kalera atera, dantzan murgildu, kantatu... parte hartu, zeren jaietaz gozatzea zure/gure esku dago.



Jaietan ere emakumeon partehartzea ezinbestekoa da eta horretarako lan banaketa derrigorrezkoa da.

Halere, lan banaketa ez da ematen, gizarte hau egotea bideratu diren ekintza matxistek, emakumea etxeko lanak egitea esplotatua izatea beharrezkoa izan baita.

Beraz, gizarte matxista honen eraginez, lan banaketa indarrean jarri behar dugu.

Bestetik, Porrontxoetan jarrera homogoboeak eta erasoen erantzuleei gogor erantzun. Diskriminazio homogoboa eragiten dutenei sexualitate librea zer den erantsi behar diegu.

Azkenik jaiak denonak dira eta denok gustora pasatzeko babosoei gogor erantzun behar diegu.

Mozkortu edo mozkortu gabe, neskak bakean uzten ez dituztenak kanpora!!

...eta neska batek ezetz esaten duenean...EZEZKOA DA!!!

GUZTIOK ONDO PASA PORRONTXO JAI HAUETAN ETA GOZATU PORRONTXO JAIAK!

Egiako Egizan

## LARUNBATA, 11

**21:00 Afaria Kuadrilentzako Plaza Haundin***

**23:30 Dantzaldia** MUNDIÑANO ANAIAK taldearekin Kultur Etxeko Gazte Eszenan.



## ASTEAZKENA, 15

**Azteazkenetik ostilarera bitartean rally fotografikoa egingo da. Animatu parte hartzen!!!** Esposaketa egingo da

**19:00 Buruhandi eta erraldoiak** TAPUNTO txarangarekin.

**20:00 Suziri** eta Porrontxoen jeitsierarekin, **jaien hasiera.**

**20:01 Kuadrilen jeitsiera** TA PUNTO eta JATORRENAK txarangekin. **Karmengo Ama kalean zehar.**

**22:00 Dantzaldia** IRATXO taldearen eskutik Pl. Haundin. Dantzaldiaren atsedenaldian **Soka Saltoa**

**23:30 Karaoke jokoa** txosnen gunean.

**23:30 KANTAURI txaranga.**

**00:30 Banana dantza eta aerobik jokoa Plaza Haundin.**

## OSTEGUNA, 16

**18:00 Buruhandi eta erraldoiak** LOS INCANSABLES txarangarekin.

**18:30 Haur Jeitsiera** LOS INCANSABLES txarangarekin Karmengo Ama kalean zehar.

**19:30 KUKUBEL** antzezlana **KUKUBILTXO**-ren eskutik, KULTUR ETXEAK EKARRIA Mª Reinan

**20:00 Polikiroldegia emakumezkoen arteko eskubaloi partidua.** 1. Mailako BERA BERA taldeak jokatuko duelarik.

**20:00 Futbola erratzekin eta betaurrekoekin** jokoa Plaza Haundin.

**20:00 TAPUNTO txaranga.**

**21:00 Txosnen gunean kontzertua:** FITE eta BURUTIK J.

**22:00 Dantzaldia TRAKETS taldearekin Plaza Haundin.** Dantzaldiaren atsedenaldian **Soka-saltoa.**

**23:30 LOS INCANSABLES txaranga.**
**00:30 Puxiken jokoa** Plaza Haundin.

## OSTIRALA, 17

**12:00** Haurrentzako **XAKI MAGO KOMIKOA** eta **Puxiken tailerra** Plaza Haundin.*

**12:30 ALKORTA ANAI-ARREBEK eta AUZOKO TRIKITILARI GAZTE TALDEAK auzoa alaituko dute.**
**17:00 Haur jokoak**, ANTXETAren eskutik Plaza Haundin*
**18:30 Buruhaundi eta erraldoiak** MOZOLOAK txarangarekin.
**19:30 Kronoeskalada Karmengo Ama kalean gora.**
**20:30 Plaza Haundin Boleibol** koadrilen arteko **jokoa.**
**21:00 Rokodromoa txosnen gunean.** Egiako rokodromoa lagunek antolaturik
**21:02 Txoznen gunean kontzertua** NEKEZ, SASKAR eta THE YOUNG PIGEONS
**23:30 Dultze meneoa** IZOTZ taldearekin **P. Haundin.**
**00:30 Plaza Haundin Sokatira koadrilen arteko jokoa.**
**01:01 Kalejira** TXATUNGA BENBE reagge-samba taldearekin.
**02:00 KANTAURI txaranga.**
**05:00 Baratxuri Zopa** Arranoko kalestuan.

## LARUNBATA, 18

**PRESO, ERREFUXIATU ETA DEPORTATUEN EGUNA**

**09:00 Diana** Antiguako dultzainariekin.
**10:00 Gladys Enea parkean haurrentzako txokolatada eta haur jokoak** AZ taldearekin: gazteluak, joku tailerra.....
**10:00 Txurraskoa Plaza Haundin.**
**11:00 Erraldoien kalejira** buruhaundiekin Antiguako dultzainariekin eta Urruñako abeslariekin, auzoan zehr eta taloak emakumearen zentroaren eskutik.

**16:00 Mus txapelketaren finalak Plaza Haundin.***

**16:00** Porrontxo Jaietako **II Eskubaloi txapelketa (21:00 arte),** kadete, senior eta Junior mailetan

**16:30 Jaietako txosnan kuadrilentzako txokolate eta kafea.**

**16:30 Txakurren erakustaldia** Ostotsa ondoan

**17:00 Haur jokoak** Plaza Haundin.

**17:00 Denontzako joku txikiak**:toka,bote, aulkiak,....**P. Berrin.**

**17:30** KILIKARIAK txaranga.

**19:00** Trapu Zaharrak taldeak antzerki berri batekin **P. Haundin.**

**21:30 Koadrilen afaria** Eztanga anai arrebak trikitixaz alaitua eta **bertso paper lehiaketa** Zai-zoiren eskutik.

**23:00 Dultze meneoa** XUAT taldearekin **Plaza Haundin.**

**23:30** KANTAURI txaranga.

**00:00 Amnistiaren aldeko kalejira** Porrontxoekin, auzoko zampar-zaha-ekin eta KANTAURI txarangarekin.

**01:30 Eztanda trikitixa** txoznen gunean, eta hatsedenaldian **irrintzi txapelketa.**

**01:00** MOZOLOAK Txaranga

**02:00** TAPUNTO Txaranga

## IGANDEA, 19

**07:00 Kuadrilentzako gosaria oilaskoekin Plaza Haundin.**

**07.30** JATORRENAK txaranga.

**08:00 Batelak Urumea ibaian**

**09:00 Diana Antiguako dultzainariekin.**

**09:00 BATELAK eta ARRAULTZ BORROKA** URUMEA IBAIAN (BERTAKO JEITSIERA KANTAURI TXARANGAREKIN)

**9:30 Estropadak** kuadrilentzako Urumean.

**10:00 Artisauen azoka (Gabiltza) eta emakume zentroaren postu bat Plaza Haundin.**

**10:30 Porrontxo Jaietako 2. Krosa herrikoia**.Gizonezko zein emakumezko heldu, senior eta junior mailak. Parte hartzen duten **kuadriletako partaidentzako sari bereziak izango dira.**



**11:00 Esku pilota eta pala txapelketen finalak** pilotalekuan.

**12:00** RAICES NORTEÑAS **euskaraz** eta gazteleraz abestuko dituzte **jotak Plaza Haundin.**

**13:00 Sagardo dastaketa** GOIZUETAKO TRIKITIXAZ alaituta **Plaza Haundin.**

**14:30 Bazkari herrikoia** auzoko elkarte diren DONOSTI-GAIN, UR-ZALEAK ETA ARRANOk prestaturiko menuarekin.*

**ERROMERIA.**

**17:00 Plaza Haundin Herri Kirolak koadrilentzako jokoa.***

**18:00** bertso eta irrintzi txapelketa

**18:30 Euskal dantzak Plaza Haundin** TREBESKA taldearekin.*

**19:30 Sardinada** GOIZUETAKO TRIKITIXA TALDEAREKIN

**20:00 Dantzaldia** KONTRAIRO taldearen eskutik **Plaza Haundin**

**21:00 KILIKARIAK txaranga.**

**22:00.Kuadrilen kalejira auzoan zehar.**

**23:00.Azken traka,** eta Porrontxinoaren erreketarekin **jaien amaiera.**

(*)Eguraldiak behartuko balu pilotalekuan ospatuko lirateke.

---

## EZ APARKATU (P) NO APARCAR

**OHARRA:** Auzokide kotxedunei laguntza eskatzen zaizue ondoren aipatzen diren egunetan eta lekuetan aparka ez dezazuen.

**NOTA:** Se solicita la colaboración de los vecinos/as propietarios de coches para que no aparquen en los días y lugares siguientes:

**TEJERIAN:** Kale honetako goiko aldea ostirala arratsaldetik larunbata gaua arte (koadrilen afaria, dela eta).

En la parte alta de la calle a partir del viernes a la tarde hasta el sábado a la noche (por la cena de cuadrillas).

**TEJERIA ETA KARMENGO AMAN:** Ostirala arratsaldean bigarren lerroan kronoeskalada.

Viernes ala tarde en doble fila por la cronoescalada.

PORRONTXO
JAIAK 99
Irailak
11 15 16 17 19 18

Porrontxo
Jaiak 99
IRAILAK-11,15,16,17,18,19

PORRONTXO 99
JAIAK

PORRONTXO JAIAK
EGIA